

I

Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio zerbitzuen analisia

Teresa Agirreazaldeggi, M.^a Milagros Ronco eta Idoia Camacho

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleak
Profesoras de la Universidad del País Vasco

Laburpena: Komunikabideek dokumentazio zerbitzuak sortu dituzte euren atzera begirako informazioa eta gainontzeko kalitatezko informazio-iturriak erraz eskuratu eta kontsultatu ahal izateko.

Euskal Herriko komunikabideetan dokumentazio zerbitzu horien ezarpena ezagutzea izan da ikerketa honen helburua. Informazioak jasotzeko galdetegi bat erabili dugu eta, guztira, 15 komunikabideren datuak aztertuak izan dira (kazeta, irrati, telebista, agentzia eta talde multi-mediak). Dokumentazio zerbitzuen ezaugarriak, egitura, lanak, funtsak, digitalizazio prozesuak eta egitasmoak aztertu eta alderatu ditugu, analisi horren emaitza nagusiak aurkeztuz.

Resumen: Los medios de comunicación se han ido dotando de servicios de documentación que les posibiliten acceder fácilmente a su información retrospectiva y consultar fuentes de información de calidad.

Esta investigación tiene como objetivo conocer la implantación real de estos servicios de documentación en los medios de comunicación del País Vasco. Se han examinado un total de 15 servicios de diferentes tipos de medios (prensa, radio, televisión, agencias y grupos multimedia), empleándose un cuestionario para la recogida de datos. A continuación se procede a analizar y comparar las características, estructura, tareas, fondos, procesos de digitalización y proyectos de los diferentes servicios de documentación; presentándose las principales conclusiones del análisis.

1. SARRERA

Komunikabideek gaurkotasunezko informazioa jaso eta osatu egingen dute, herritarrei zenbait modu eta bidetatik eskaintzeko. Horretarako, ezinbestekoa zaie atzera begirako informazioa eskura eta kalitateko informazio iturrietara sarrera izatea. Lehiakortasun informatiboa gero eta handiagoa denez, kanalen eta emisio orduak ugartu direnez eta komunikazio enpresak dibertsifikatu direnez, edukien kudeaketak eraginkorra izan behar du. Horretarako, Euskal Herriko komunikabideek dokumentazio zerbitzuak eratuz joan dira.

Galdetegi batean bildutako datuen bitartez, dokumentazio zerbitzu horien funtsak, egitura, lanak, ezaugarriak, digitalizazioa eta proiektuak aztertu ditugu, Euskal Herrian dokumentazio zerbitzu horien benetako zabalkundea eta egiten duten lana aurkezteko helburuarekin.

Gure azterlanean, hasieran Euskal Herrian dauden komunikabideekin jarri ginen harremanetan, dokumentazio zerbitzua zeintzuek daukaten jakiteko asmoz. Horretarako, dokumentazioko jardunean gutxienez pertsona bat egotea jarri genuen baldintzat.

Sudouest, *El País*, *El Mundo* egunkariak eta *SER* eta *COPE* irrati kateek ez daukate dokumentazio zerbitzurik Euskal Herrian. Zerbitzu hori euren egoitza nagusietan dituzte, eta berriemailek sarearen bidez kontsultatzen dituzte datu-baseak.

Noticias de Gipuzkoa egunkariak ere ez dauka dokumentazio zerbitzu propioirik, eta *Noticias Taldeko* gainontzeko egunkarietako dokumentazio zerbitzuez baliatzen da. Halaber, *Gara*, *Le Journal du Pays Basque*, *Goiena* taldea, *Herri Irratia*, *Antena 3* eta beste hedabide batzuek ere, batik bat lokalek, ez dute dokumentazio zerbitzurik.

Vocento taldeak bere irrati eta telebista lokalen dokumentazioa antolatzen du. *Garan* argazkilariek sartzen dituzte argazkiak eta euren datuak sisteman, eta testurako, Phrasea sistema informatikoa erabiltzen dute, dokumentalisten bitartekaritza gabe. *Antena 3* telebistaren produkzio zentroak dokumentalista bat izan zuen hasieran, baina azken urteetan ez dago lanpostu hori. Irratietan fonoteka musikala ezinbestekoa da, baina gerta liteke horren antolamenduaz arduratzen den pertsonarik ez egotea.

2. DOKUMENTAZIO ZERBITZUEN EZAUGARRIAK

2.1. Aztertutako dokumentazio zerbitzuak

30 komunikabiderekin jarri ginen harremanetan, eta horietatik 19k baieztatu zuten dokumentazio zerbitzua daukatela, eta zerbitzuko arduradunaren edota kontaktatzeko pertsonaren datuak ere eman zizkiguten. Pertsona horiei 2007ko apirilean alde zuzenetik osatutako galdetegi bat bidali genien. Azkenean, 13 erantzun jaso ditugu, 15 komunikabideren informazioa emanez. *EITB* taldeko irratiek, hau da, *Radio Euskadi*, *Euskadi Irratia* eta *Radio Vitoria* irratiek galdetegi bakar batean erantzun baitzuten.

Aزتتutako erantzunak honako komunikabide hauenak dira:

- *Atlas País Vasco*
- *Berria*
- *Bizkaia Irratia*
- *Deia*
- *Diario de Navarra*

- *Diario de Noticias*
- *El Correo Español-El Pueblo Vasco*
- *El Diario Vasco*
- *ETB-Euskal Telebista*
- *Eusko Irratia SA [EITB] (Radio Euskadi, Euskadi Irratia eta Radio Vitoria)*
- *Noticias de Álava*
- *TVE*
- *Vocento*

Komunikabideen tipologiaren arabera, honela geratzen dira banatuta: bi telebista; sei egunkari; bi multimedia talde; berri agentzia bat; irrati bat, eta irrati talde bat, zeinek hiru irrati hartzen dituen.

Dokumentazio zerbitzu kopuru txikia da, kontuan hartzen badugu zenbat komunikabidek dituzten egoitza edota delegazioak Euskal Herrian.

2.2. Dokumentazio zerbitzuak zenbakietan

Aztertutako komunikabideen hedapen eremua hurrengo hau da:

- Araba: *Noticias de Álava*.
- Bizkaia: *Deia* eta *Bizkaia Irratia*.
- Gipuzkoa: *El Diario Vasco*.
- Nafarroa: *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias*.
- Euskal Herria: *Berria*, *ETB-Euskal Telebista* eta *Eusko Irratia SA* (EAE eta inguruak —Iparraldea, Nafarroa...).
- Espainia: *TVE* eta *Atlas País Vasco*.
- Besteak: *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (EAEz gain, Errioxa, Burgos eta Kantabria) eta *Vocento* (zenbait komunikabide ditu autonomia erkidego batzuetan, eta parte hartzen du Argentinako bi egunkaritan: *La Voz del Interior* eta *Los Andesen*).

Dokumentazio zerbitzuak herri hauetan dituzte:

- Andoain (Gipuzkoa): *Berria*.
- Bilbo: *Atlas País Vasco*, *Bizkaia Irratia*, *Deia*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *ETB-Euskal Telebista*, *Radio Euskadi*, *TVE* eta *Vocento*.
- Donostia: *El Diario Vasco* eta *Euskadi Irratia*.
- Iruñea: *Diario de Navarra* eta *Diario de Noticias*.
- Gasteiz: *Radio Vitoria* eta *Noticias de Álava*.

Komunikabideek euren hedapen eremuaren hiriburuan dute egoitza, *Berriak* izan ezik. Egunkari hori Martin Ugalde kultur parkean dago, Andoainen, Donostiatik gertu. *Berriak* zein *Euskadi Irratiak*, biak komunikabide euskaldunak, euskaldun kopuru handien duen lurraldean dute egoitza. Bilbon, hiriburu populatuenean, biltzen da komunikabide kopuru handiena eta askotarikoena.

TVE, ETB-Euskal Telebista eta *Eusko Irratia* komunikabide publikoak dira; gainontzeko hamarrak, ordea, pribatuak.

Enpresa guztiek dute webgunea, baina dokumentazio zerbitzu batek ere ez du webgune propiorik. Bestalde, posible da arduradunekin posta elektronikoen bidez kontaktatzea.

Hona hemen komunikabideek dokumentazio zerbitzua sortu zuten urtea:

1934: *Radio Vitoria*

1973: *RTVE*

1979: *Diario de Navarra*

1982: *Euskadi Irratia* eta *Radio Euskadi*

1985: *ETB-Euskal Telebista*

1987: *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (datu basea sortu zuten urtea, baina lehenago bazeukaten artxibo bat)

1990: *Bizkaia Irratia*

1991: *El Diario Vasco*

1994: *Noticias de Navarra*

1996: *Vocento*

1997: *Deia*

1998: *Atlas País Vasco*

2003: *Berria*

2004: *Noticias de Álava*

Aztertutako dokumentazio zerbitzuek hurrengo mendekotasun hierarkikoa dute enpresaren egituraren barruan:

— Komunikabide Inprimatuen Zuzendaritza Orokorra: *Vocento*.

— Zuzendaria: *Radio Vitoria, Euskadi Irratia, Radio Euskadi, Bizkaia Irratia* eta *Deia*.

— Produkzioko zuzendaria: *ETB-Euskal Telebista*.

— Erredakzioa: *Atlas País Vasco, Noticias de Álava, El Diario Vasco, RTVE* (Albiste Zerbitzuak), *El Correo Español-El Pueblo Vasco* (Erredakzioko Zuzendaritzaondokoa), *Diario de Navarra* (Nafarroako Erredakzioko Zuzendaritza) eta *Diario de Noticias*.

— Zerbitzuak: *Berria*.

Prensa idatzian, dokumentazio zerbitzuak erredakzio barruan daude sarri. *RTVE*koa ere horrela dago, eta albiste zerbitzuen mendekotasun hierarkikoa du. *RTVE*ek zerbitzu osagarri bat du Bilbon, zeinen funtzio nagusia, bakarra ez esateagatik, Bilbon egoitza duen Euskal Herriko lurraldeko erredakzioaren saio informatiboen produkzioan laguntzea den. Baina zerbitzu nagusia, enpresako eremu guztiak estaltzen dituena, Madrilen dago; zehazki, programa informatiboen dokumentazio zerbitzua (Torrespaña) eta *RTVE*ko dokumentazio zentroa (Prado del Reyn).

2.3. Dokumentazio zerbitzuen erabiltzaileak

Euskal Herriko komunikabideen dokumentazio zerbitzuak enpresa barrurako dira, eta komunikabideko bertako langileek erabiltzen dituzte, kazetari moduan identifikatuak sarritan.

Noticias de Álava egunkariko eremu guztietako langileek erabiltzen dute dokumentazio zerbitzua: erredakzio, publizitate, marketin eta administraziokoek. *Diario de Navarra*, langile guztiek erabiltzen dute, batik bat Información taldeko erredakziokoek, baita beste arlotakoek, batez ere publizitate eta marketinekoek. *Vocenton*, erredaktoreek, argazkilariek, infografoek, diseinatzaileek, dokumentalistek, publizistek, administraziokoek eta bestek erabiltzen dute. *Berrian* kazetariak erabiltzen dute dokumentazio zerbitzua, baita *Bizkaia Irratian* eta *Atlas País Vascon* ere.

Enpresako erabiltzaileek ez daukate inolako eragozpenik dokumentazio zerbitzuak kontsultatzeko; kanpokoei, ordea, ez zaie baimentzen edota zerbait ezohikoa da (*Noticias de Álava*, *El Diario Vasco*, *Antena 3 TV País Vasco* eta *RTVE*). *Berria* egunkarian izan ezik, non aukera hori eskaintzen dituzten «beste zerbitzuen» artean daukaten.

Noticias de Álava egunkariak ez die artxiboko sarrera baimentzen kanpoko erabiltzaileei, baina enpresatik kanpoko erabiltzaileen kontsultei kasu egiten diete, «eskatutako informazioa aurkitzea erraza bada eta azkar egin baldin badaiteke». *RTVE*n kanpoko erabiltzaileek posible dute dokumentazioa eskuratzea, aldez aurretik baimena lortu badute. *Vocenton* ez zaie erantzuten kanpoko eskaerei.

*EITB*n dokumentazio zerbitzua taldeko langileentzat bakarrik da. Mailegu zerbitzua ere barrurako da bakarrik, eta kanpoko jendeari zuzenean ez zaio zerbitzurik ematen; kanpoko eskaerak salmenta departamentutik bideratzen dira. Kanpoko produkzio etxeetako langileek ahal dute artxiboko materiala eskuratu, aldez aurretik baimena baldin badute.

2.4. Kontsulten kopurua

Aztertutako dokumentazio zerbitzu gehienek eskaerak ez dituzte ez kontabilizatzen ezta erregistratzen ere, eta, horren ondorioz, ez dute analizatzen erabiltzaileek egiten dizkieten kontsultak. Esan dezagun kontsultak honako modu hauetan egin daitezkeela: datu baseetan eta dokumentuetan (zentzu hertsian) zuzenean sartuz edo dokumentalisten eta maileguen bitartez.

Vocentotik honela azaldu dute egoera: «Erabiltzaile gehienek beren kabuz egiten dituzte beraien kontsultak eta dokumentuen deskargak; dokumentazio zerbitzura galdera konplexuak edota ordainduzko kanpoko zerbitzuetara egin behar direnak iristen dira soilik eta oso gutxi izaten dira». Azaldu digutenez, dokumentazio zerbitzu horretan erabiltzaileek beraiek egindako kontsultak milaka dira egunero, eta erabiltzaile kopurua 2.000 eta 3.000 artekoa dela uste dute.

Hiru dokumentazio zerbitzuek bakarrik eskaini dituzte eskakizunen datuak: *Berriak*, *ETB-Euskal Telebistak* eta *Eusko Irratiak*.

Berria-n sistema batek erabiltzaile kopurua eta zer dokumentu mota kontsultatzen den jasotzen ditu, hurrengo datu hauek erakutsiz: Hemeroteka —Azala, *Egunero*, Gehigarriak, *Berria* eta *Hemeroteka Plus*—, Argazkiak eta Artxiboa. 2007ko urtarrileko datuak hauek izan ziren:

— Hemeroteka:

- Azala: 2.170 kontsulta (batez beste, 70 egunean).
- *Egunero*: 5 kontsulta.
- Gehigarriak: 140 kontsulta.
- *Berria*: 1.775 kontsulta.
- *Hemeroteka Plus*: 163 kontsulta.

— Argazkiak: 11.038 (batez beste, 356 kontsulta egunean).

— Artxiboa: 498 (batez beste, 16 kontsulta egunean).

ETB-Euskal Telebistak egindako maileguak erregistratzen ditu; eta, adibidez, 2006an 165.000 zinta mailegatu zituzten; horietatik %40 saioak emititzeko mailegatu ziren.

Bestalde, *EITB* taldeko irratiek urtean 10.000 kontsulta jasotzen dituztela adierazi zuten.

2.5. Dokumentalisten ezaugarriak

Ikus ditzagun orain zeintzuk diren komunikabideetako dokumentazio zerbitzuetan lan egiten dutenen pertsonen ezaugarriak.

Ikertutako dokumentazio zerbitzuetan 58 pertsona ari dira lanean:

- Pertsona 1: *Deia*, *Noticias de Álava* eta *Bizkaia Irratia*.
- 2 pertsona: *Atlas País Vasco* eta baita *Eusko Irratia* taldeko irradi bakoitzean ere (*Radio Vitoria*, *Radio Euskadi* eta *Euskadi Irratia*).
- 3 pertsona: *RTVE*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco*, *Berria*, *Vocento* eta *Diario de Noticias*.
- 5 pertsona: *El Diario Vasco*.
- 6 pertsona: *Diario de Navarra* eta *Eusko Irratia*.
- 21 pertsona: *ETB-Euskal Telebista*.

Espero zitekeen moduan, dokumentazio zerbitzu handiena *ETB-Euskal Telebistak* du, egoitza eta produkzio zentroak Euskal Herrian dituen telebista bakarrak. Gainontzeko dokumentazio zerbitzuetan kopurua bat eta sei pertsonen artekoa da. Beharbada, zenbaki horiek beren zentzu osoa har dezaten, eta interpretazioa egokiagoa izan dadin, komunikabideko langile kopurua ere kontuan hartu beharko genuke, batez ere erredakziokoa.

Sexuaren araberako banaketa, honako hau da: %68,96 emakumeak dira (40) eta %31,03 gizonak (18). Hortaz, dokumentazio zerbitzuetako langileak bi herenak emakumeak dira.

Pertsona horien heziketa maila honako hau da:

- Lizentziadunak: 43
- Diplomadunak: 2
- Teknikari espezialistak (LH-2): 3
- Teknikari laguntzaileak (LH-1): 8
- Batxilergoa: 1
- Besteak: 1

Esan dezakegu dokumentazio zerbitzuetako langileak hezkuntza maila altukoak direla: %77,58 unibertsitarioak dira, eta horietatik %74,13 lizentziadunak.

Enpresetan pertsona horiek betetzen dituzten lanpostuak eta lan kategoriak honako hauek dira:

- Dokumentalista: 35
- Dokumentalista laguntzailea: 13
- Artxibozaina: 1
- Kazetaria: 5
- Informatikaria (analista/programatzailea): 1
- Administratiboa: 3

Dokumentalista da gailentzen den kategoria (%60,34); gehitzen badiogu artxibozain kategoria, dokumentalista-artxibozain tandemaren ehunekoak %62,06ra iristen da. Dokumentalista laguntzailea da bigarrena (%22,41), eta kazetaria hirugarrena (%8,62).

Historikoki, egunkarietan ohikoa izan da erredakziotik etorrira eta kazetari lanerako kontratatutako pertsonak artxiboan bukatzea lanean. Ditugun datuek, ordea, egoera hori zeharo gaindituta dagoela erakusten dute. Gure ikerketaren arabera, gaur egun komunikazio enpresetako zuzendari-tzak dokumentazio zerbitzua lan espezializatu moduan ikusten du, erredakzioko lanetik bereizita, eta ohartu dira lan horrek zeregin eta ezaugarri jakin batzuk dituela. Esan dezagun, baina, lan kategoria eta heziketa maila jaso ditugula; ez, ordea, zein lizentziaturatik datozen dokumentalista eta artxibozain horiek.

Bestalde, aurrekoan bezala, sektorearen lan eta gizarte egoeraz jabetzeko, datu hauek datu ekonomikoekin (soldatak, gehigarriak...) eta lan baldintzekin osatu beharko lirateke; eta enpresa bereko beste lantalde batzuen datuekin edota beste alorretan diharduten dokumentazioko profesionalekin.

3. FUNTSAK ETA DOKUMENTUEN KUDEAKETA

3.1. Egunkariak

3.1.1. *Berria*

Prensa artxiboaren datuak:

Prensa artxiboaren funtsak *Berria*, *Egunero* (2003ko otsailaren 21etik ekainaren 20ra) eta *Hitzak* argitalpenek osatzen dute. *Euskaldunon Egunkaria*-ren bilduma koadernatua ere badute, 1990etik 2003ko otsailera artekoa. Horrez gain, 1.300 liburu inguruko liburutegi bat daukate, eta aldizkariak jasotzen eta gordetzen dituzte.

Testu zein argazkien datu baseak mysql programarekin egina daude, Perl eta PHP CGI lengoaietan garatuak. Testu indexatzailea switch da.

Erabiltzaileek barruko sarearen bitartez kontsultatzen dituzte datu baseak. Dokumentuak euskaraz daude, baita haien analisisa ere. Saillapen Hamartar Unibertsala erabiltzen da liburuak ordenatzeko, eta IPTC-*Subject NewsCodes* (*International Press Telecommunications Council*) kazeta testuak eta argazkien analisisirako, biak ere euskaratuak eta beren beharretara egokituak.

Argazki bildumaren datuak:

Argazki funtsak *Argazki Press* eta *Efe* agentzietatik eta *Le Journal* egunkaririk datoz, edota bertako kazetariak lortutakoak edo jendeak emandakoak izaten dira. 1.200.000 argazki digital eta 50.000 inguru paperezko dauzkate gordeta. Argazkien datuak euskaraz, gaztelaniaz, frantsesez eta ingelesez daude.

Beste funts eta zerbitzu batzuk:

Kanpoko eskaerak artatzen dituzte.

Etorkizunerako egitasmoak:

Audioak ere artxibatzea aurreikusita daukate. Horretarako, testuekin erabilgaitako moduko fitxa bat osatu dute. Kazetariak MP3 formatura pasatuko dute audioa, eta fitxako hainbat eremu beteko dituzte. Horren ondoren, dokumentalistek analizatu eta gordeko dute audioa, testuekin egiten duten legez.

3.1.2. *El Correo Español-El Pueblo Vasco*

Prensa artxiboaren datuak:

Komunikabide idatzietan argitaratutakoa gordetzen dute, eta 1.340.000 artikulua baino gehiago daude, paperean, xlm-n eta pdf-n. Argitalpen osoa, ha-

sieratik, pdf-n digitalizatzen ari dira, eta bi milioi pdf-tara helduko direla uste dute. Bilduma koadernatua ere badute. Dena digitalizatua dago, baimendutako edozein erabiltzailek Intranetaren bidez sarean kontsultatzeko moduan. Albisteak berreskuratzeko lengoia askea da. Dokumentuak gaztelaniaz daude eta, bakan batzuk, euskaraz.

Argazki bildumaren datuak:

Etxeko argazkilariek eta agentzia lokalek egindako argazki hautatuak gordetzen dira; gutxi gorabehera 390.000 dira, eta batik bat, tokikoak dira. Testuekin gertatzen den legez, dena dago digitalizatua eta sarean, baimendutako edozein erabiltzailearen esku.

Bideotekaren datuak:

Oso proiektu berria da. Funtsa 400-500 bideok osatzen dute, *Bilbovisión* telebistatik eratorritakoak. Fitxategi digitalak dira, nahiz eta Access-eko antzinako datu base bat mantentzen duten. Gaiak oso lokalak dira, batik bat Bilborekin lotuak. Sarean bereizmen gutxiko bideoak eta datu basea daude, Intraneten bidez eskura daitezke. Bereizmen handia, ordea, saretik kanpo dago. Bideoak eta horien gaineko dokumentazio lana gaztelaniaz daude.

Beste funts eta zerbitzu batzuk:

Aldizkariak eta liburuak ere gordetzen dituzte, liburutegi txiki batean. Kazetariak *Vocento Taldeko* gainontzeko datu baseetan sartzeko aukera dute. Baita kanpoko beste hainbat datu baseetan ere.

Etorkizunerako egitasmoak:

Hurrengo egitasmo hauek dituzte: hemerotekako digitalizazioa bukatu; *Bilbovisión* telebistako katalogazioa arautu eta *Álava 7* telebistarekin hasi; gehigarri komertzialen sarrera datu baseetan sistematizatu; oro har, egunkariko egunerokoa bermatu, eta gero irratiei buruz pentsatu.

3.1.3. *Deia*

Prensa artxioboaren datuak:

Deia egunkariko dokumentazio zerbitzuaren lana komunikabideak berak ekoiztiko eta publikatutako informazioan oinarritzen da. Bertako dokumentalistak honela laburbildu du lan hori: «Egunero argitaratzen diren albisteak, orrialdeak eta argazkiak gorde eta eskaini». Gutxi gorabehera, 80 orrialde, 100 argazki eta 300 albiste izaten dira tratatu beharrekoak.

2004. urtetik aurrera argitaratutakoa digitalizatua dago, eta pixkanaka-pixkanaka aurreko informazioa ere digitalizatzen ari dira. Datu baseak osatzeko, Arcano programa erabiltzen dute; teletipoak kudeatzeko, berriz, Millenium. Erabiltzaileek zuzenean kontsultatzen dituzte datu baseak Arcano Visual programaren bitartez.

Etorkizunerako egitasmoak:

Paperean eta negatiboan dauden dokumentuak digitalizatu eta artxibo berean eduki.

3.1.4. *Diario de Navarra*

Prensa artxiboaren datuak:

Prensa artxiboaren oinarria hauxe da: 1903. urtetik gaur arteko heme-roteka; 1979tik 1998ra bitartean eraturako dosierren ondarea; eta beste komunikabideetan plazaratutako albisteen hautaketa. 1979tik 1998ra bitartean, paperean, dosierak sailkapen alfanumeriko baten arabera ordenaturik, eta 1999. urtetik aurrera, era digitalean. Informazio orokorreko egunkari bati dagozkion funtsak ditu, eta Nafarroako eremu geografikoarekin zerikusia duen informazio guztiari tratamendu osoagoa ematen zaio. Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan ekoizten eta Nafarroa Garaian ordezkariak edota argitaraldiak dituzten egunkari guztiei ere segimendu zehatza egiten zaie. Gainontzeko elkar-tekoek ez dute horrelako segimendurik. Espainiako egunkarietan argitaratutako hainbat artikulu ere dokumentatzen dira.

Langile bakoitzak Intraneten bitartez ondare guztia du eskura, idatziak zein irudiak. Ondarea garatuz eta landuz joan den heinean, formatu digitalak ere aldatuz joan dira; une hauetan, albisteetarako txt, orrialdeetarako pdf eta irudietarako jpg formatuak erabiltzen dituzte. Oracle, Intermedia eta SQL programak erabiltzen dituzte datu baseak osatzeko.

Argazki bildumaren datuak:

Argazkien artxiboan XX. mendearen hasieratik aurrerako irudiak agertzen dira, baina 1922. urtera arteko irudiak nahiko urriak direla esan behar da, urte horretatik aurrera sarriago publikatuko dira. 80ko hamarkadara arte erabilitako euskarriak papera eta negatiboak dira. Hortik aurrera, filmak eta sistema digitala, biak, eta 2005. urtetik aurrera era digitalean soilik ekoizten da.

Hala ere, 1979. urtetik aurrerako irudi guztiak digitalizatuta daude jada; milioi bat irudi inguru dira. Filmetan edo positibatutako paperean gordeta dagoen artxibo historikoa ez dago zenbatua, baina oso garrantzitsua da. Ondarea Nafarroa Garaiko eremu geografikoari dagokio batik bat, eta gehien datuak gaztelaniaz daude. Espainiako eta Espainiatik kanpoko agentzien irudiak ere badaude, batez ere 1950etik 1970era eta 1982tik 1998ra artekoak.

Irudiak prentsarako direnez, jpg formatuan ez dute mega bat baino gehiago betetzen. Normalean, digitalizazioa 300 dpi-ko bereizmenean eta neurri originalak errespetatuz egin ohi dituzte; irudia txikia bada, 1.200eko neurrira irits daitezke. Batzuetan kalitateko publikazio eta erakusketetarako eskaneatu bereziak ere egin izan dituzte.

3.1.5. *Diario de Noticias*

Prensa artxiboaren datuak:

Artikuluak modu automatikoan sartzen dira datu basean, eta maketazioak aurretik finkatutako eremuetan banatzen dira. Datu basean 1995etik 1998ra bitarteko testuak gordetzen dira. Arazo teknikoak eta sistemaren aldaketa zirela medio, 1998tik 2004ra bitarteko testuak eskuz artxibatuta daude, paperean eta gaiaren arabera. 2004tik aurrera publikazio osoko pdf-ak gordetzen dira, gehigarriak barne. Horretaz aparte, *Diario de Noticias*en bi bilduma koadernatu eta *Diario de Navarra* egunkariaren bat dauzkate. Urteko egunkariak paperean multzoka pilatuta ere gordetzen dira, kontsultatzeko eta fotokopiatzeko orduan eroso delako.

Esan dugunez, egunkarian argitaratutako guztia artxibatzen da, eta, horretarako, Mediagrid programa erabiltzen dute. Datu basea biblioteketan banatuta dago:

- Testuak (artikuluak, hain zuzen).
- Dokumentatzeko dauden argazkiak.
- Historikoa (argazki digital eta digitalizatuen artxibo historikoa).
- Pdf-ak (formatu horretan dauden orrialdeak).
- Liburuak (kontserbatutako liburuen fitxa katalogafikoak).
- Kontaktuak (negatiboan gordetzen diren argazkien fitxak).

Egunkariko langileek barneko sarearen bitartez kontsultatzen dute datu basea eta jasotzen dituzte dokumentuak; gainontzeko erabiltzaileek urte bateko hemeroteka kontsulta dezakete Interneten bidez.

*Diario de Álava*n bezala, *Diario de Noticias*en ere, nahiz eta hiztegi kontrolatua erabiltzeko aukera egon (dokumentalistek osatutako deskriptore ez-hierarkikoak), denbora faltagatik artikuluak ez dira behar den moduan katalogatzen, eta, horregatik, bilaketak testu librea egin behar dira.

Argazki bildumaren datuak:

Gaur egun artxibatzen diren argazki guztiak digitalak dira, eta datu base berean gordetzen dira. 2001etik aurrera argitaratutako argazki guztiek eta argitaratu gabeko hautatu batzuek artxibo historikoa osatzen dute: 575.000 argazki, hain zuzen, *Noticias Taldeko* egunkarietan. Urte horretakoak baino lehenagokoak (1994tik 2002ra) negatiboetan daude, eta artxibagailuetan gordetzen dira, zenbaki bidez ordenatuta. Argazki horiek berreskuratzeke,

datu basean egin behar da bilaketa, non kontaktuen deskripzioa jasotzen duten 154.227 erregistro dauden.

Egunkariak argitaratutako guztia gordetzen da. Analisisirako hiztegi kontrolatu bat garatu da, *keywords* edo deskriptore ez-hierarkikoetan oinarritua. Analisi eta kontsultarako hizkuntza gaztelania da.

Beste funts eta zerbitzu batzuk:

2004an, *Navarra Hoy* (1982-1994) aurreko egunkariaren argazki funts guztiak digitalizatu zituzten, eta egunkariaren artxibo historikoaren parte dira gaur egun, gainontzeko argazki digitalak legez. *Navarra Hoy* egunkariaren zenbaki guztiak ere koadernatuak gordetzen dira. *Noticias Taldeko* beste bi egunkarien sorreratik —*Noticias de Gipuzkoa* eta *Noticias de Álava*—, *Diario de Noticias* egunkariako artxiboa taldeko langile guztiek ahal dute kontsultatu.

Liburutegi txiki bat dute, *Diario de Noticias*ek argitaratutako liburu eta argitalpenez osatua, baita Nafarroarekin zerikusia duten hainbat gairi buruzko liburu hautatu batzuk eta erreferentziako lanak (hiztegiak eta entziklopediak).

Etorkizunerako egitasmoak:

1994tik 2004ra bitarteko *Diario de Noticias* egunkariaren orrialdeak berreskuratzen ari dira pdf formatuan. Bestalde, *Diario de Noticias* egunkariaren bilduma koadernatu bat kanpoko eraikuntza batera eramango dute, leku gehiago izateko.

3.1.6. *El Diario Vasco*

Prensa artxiboaren datuak:

Datu basean 1999tik aurrera plazaratutako albisteak eta orrialdeen pdf-ak gordetzen dira, 900.000 albiste inguru eta 400.000 pdf inguru. 1935etik 1998rako *El Diario Vasco* egunkariako zenbakiak liburukietan koadernatuta daude; horiek erredakzioetan bakarrik kontsulta daitezke.

Gipuzkoako egunkari honen artikulua gaztelaniaz eta euskaraz daude (azken horiek askoz gutxiago dira). Datu baseak enkarguz egindako programa baten gainean eraikita daude, eta barruko sarearen bitartez kontsultatu ahal dira.

Dokumentuak sailkatzeko, sistema propio bat erabiltzen dute, enkarguz eginda.

Argazki bildumaren datuak:

400.000 argazki inguru daude gordeta. Datu basea enkarguz egindako programa baten gainean eraikita eta barruko sarearen bitartez kontsultatzeko moduan dago. Dokumentuak sailkatzeko, sistema propioa dute, eta gaztelaniaz dago.

Etorkizunerako egitasmoak:

Poliki-poliki *TeleDonosti* kateko bideoak jasotzeko asmoa dute.

3.1.7. *Noticias de Álava*

Prensa artxiboaren datuak:

Testu guztiak gordetzen dira; egunkariaren sorreratik bertatik hala egiten dute. Artikuluak modu automatikotan sartzen dira datu basean, eta maketazioak aurretik finkatutako eremuetan banatzen dira. Modu automatikotan gordetzen dira argitalpen guztiko pdf-ak, gehigarriak barne. Horrez gain, *Diario de Álava*ren bi bilduma koadernatuak daude. Paperezko egunkariak ere gordetzen dira, hilekoak eta aurreko hilekoak, kontsultatzeko eta fotokopiatzeko orduan erosoak direlako.

Datu baseak osatzeko, Mediagrid programa erabiltzen dute, eta *biblioteketan* banatuta dago: testuak (artikuluak, hain zuzen); dokumentatzeko dauden argazkiak; historikoa (argazki digital eta digitalizatuen artxibo historikoa); eta pdf-ak (formatu horretan dauden orrialdeak).

Egunkariko langileek euren kontsultak barne sarearen bitartez osatzen dituzte, eta gainontzeko jendeak hemeroteca Internet bidez kontsulta dezake.

Artikuluen analisiari dagokionez, nahiz eta hiztegi kontrolatua erabiltzeko aukera egon (deskriptore ez-hierarkikoak), denbora faltak ez du uzten artikulua behar den moduan katalogatzen eta, ondorioz, bilaketak testu librean egin behar izaten dira.

Argazki bildumaren datuak:

Artxibatzen diren argazki guztiak digitalak dira, eta datu base berean gordetzen dira. Argitaratutako argazki guztiek eta argitaratu gabeko argazki hautatu batzuek artxibo historikoa osatuko dute, dokumentatu ondoren. 2007an, 575.000 argazki digitaletan osatzen zuten *Noticias Taldeko* artxibo historikoa. Argazkien datu basea eratzeko, Mediagrid programa erabiltzen dute; eta datu basea barne sarearen bitartez kontsultatzen dute erabiltzaileek. Argazkiak deskribatzeko, hiztegi kontrolatu bat darabilte (*keywords* edo deskriptore ez-hierarkikoak).

Bestalde, *Noticias de Álava* egunkariko langileek *Noticias Taldearen* barruan dauden beste bi egunkarietako artxiboak ere kontsulta ditzakete; *Noticias de Navarra* eta *Noticias de Gipuzkoa* egunkarietakoak, hain zuzen.

3.1.8. *Vocento Taldea*

Prensa artxiboaren datuak:

Vocento Taldean oraingoz ez dago datu base zentral bat testuak batzeko. Tokiko egunkariak osatzen dituzte artikuluen eta pdf-en datu baseak, eta metabilatzaile baten bitartez, 14 egunkariaren datu baseetara sartzeko aukera dago. Lauzprobost milioi argazki inguru dituzte indexatuak eta modu digitalean

bilduta, zazpi milioi artikulua eta zortzi milioi orrialderen baino gehiagoren pdf-ak. Erabiltzaileek Intraneten bitartez kontsultatzen dute hori guztia.

Artikuluak bilatzeko, lengoia askea erabiltzen dute; hala ere, hainbat eremutan hiztegi kontrolatua dute. Bilaketarako hurrengo tresna hauen laguntza dute: sinonimoen hiztegia, deribazio-erregelak eta bezeroentzat egokitutako *query*-en diseinua, *cluster*-ak...

Testuak gaztelaniaz daude. Oso gutxitan daude dokumentuak euskaraz, ingelesez, alemanez edo katalanez.

Argazki bildumaren datuak:

Vocento Taldeko dokumentazio zerbitzuak argazkiekin datu base zentral bat elikatzen eta mantentzen du, non 660.000 dokumentu indexatuta eta modu digitalean bilduak dauden. Badago, halaber, infografiaren datu base zentral bat, 8.300 grafiko bektorialekin, katalogatuta eta modu digitalean gordeta.

Horretaz aparte, eta testuekin ikusi dugun legez, sarearen bidez tokiko 14 egunkariaren datu baseetan sartzeko aukera ere badago. Horrek 4-5 milioi argazki indexatu eta digitalki gordeak kontsultatzeko aukera ematen du. Dokumentuen katalogazio eta zaharkitze maila oso aldakorra da. Dokumentuen hizkuntza ohikoenak gaztelania eta ingelesa dira. Analisia lengoia librea egiten da.

Bideotekaren datuak:

Vocento Taldeko telebista lokalen bideotekan sartzeko aukera dago.

Beste funts eta zerbitzu batzuk:

Oinarrizko erreferentziako liburutegi txiki bat dute, eta zinema inguruko aldizkariak hustu egiten dituzte, hau da, artikulua hautatu, analizatu eta gorde datu basean. Kanpoko testu eta argazkien datu baseetan sartzeko aukera dute.

Etorkizunerako egitasmoak:

Vocento Taldeko telebista lokaletarako dokumentazio sistema ezartzen eta irrati lokaletarako dokumentazio sistemak aztertzen ari dira. Beste proiektu batzuk metabilatzailea garatzea eta tresnen eta datu baseen kontsulta bilduta integratzea da.

3.2. **Telebistak**

3.2.1. *Antena 3 TV País Vasco*

Bideotekaren datuak:

Dokumentazio zerbitzua 1999an osatu zuten, eta 2004an bertan behera utzi zuten. Funtsak, gutxi gorabehera 6.000 zinta, honela osatuta daude: albiste-

gien emisioaren kopia (*paralelo de antena*), gaikako konpaktatuak (jatorrizko grabazioen zati hautatuak bata bestearen atzean jasotzen dituzten zintak dira), Euskal Herriko eguneroko albistegien bideoak, 'A fondo' asteko albistegiaren bideoak, Espainiako albistegien bideoak, jatorrizko grabazioak eta promozioko zintak.

1994tik aurrerako grabazioak gordeta daude, EAE, Nafarroa, Kantabria, Errioxa eta Burgosko herri gertukoena eta Iparraldeko lurraldeei dagozkienak. Gaztelaniaz daude. Funtz zaharrenak Betacam SP eta 1999tik aurrera Betacam SX zintetan daude. Erabiltzaileek zuzenean kontsultatzen dituzte datu baseak, barneko sarearen bitartez.

3.2.2. *ETB*

*ETB*ko dokumentazio eta artxibo sailak bi betekizun nagusi ditu. Alde batetik, *ETB*ren emisioak eta batez ere *ETB*ko produkzioak gorde eta zaindu eta material horri guztiari dagokion tratamendu dokumentala gauzatu. Eta, bestalde, euskarri dokumentala eman (irudia, audioa, informazioa) eskatzen duten barneko zein baimendutako kanpoko erabiltzaileei. Sailak hiru arlo ditu: bideoteka, dokumentazio idatzia (hemeroteka) eta fonoteka.

Bideotekaren datuak:

Bideoteka ikus-entzunezko materialaz arduratzen da, eta *ETB*ren emanaldiak eta ekoizpenak gordetzen dituzte bertan. Horretarako, gordetako materiala deskribatzen eta indexatzen duten datu baseak osatu dituzte, artxiboko irudiei edota saioen informazioari buruzko eskakizunei erantzuten diete eta emanaldirako zintak prestatzen.

Ikus-entzunezko ondarea 230.000 bideozintak (Betacam SP, Betacam digitala, 1" C, VHS) eta 2.000 orduko bideoklipek (DVCPRO 25) osatzen dute; albiste eta kirol saioek, jatorrizko grabazioek, agentzietako materialak eta emanaldietarako kopiek, hain zuzen.

Dokumentalistek analizatu, deskribatu eta indexatu egiten dituzte dokumentuak, eta AIRS sistema dokumentalaren datu baseen bitartez bila eta berreskura daitezke. Deskripzio maila desberdina da, material motaren arabera: barne produkzioa —eta batez ere albisteak eta kirola— zehatz-mehatz ikuskatzen eta deskribatzen da, edukiaren laburpen kontzeptualaren, irudien deskribapen zehatzaren (planoen deskripzioa) eta gaiaren zein irudien indexazioaren bitartez. Analisi dokumentala egiteko thesaurus bat erabiltzen dute, gaztelaniaz, zerbitzuan osatua. Kanpoko produkzioak, ordea, katalogazio orokor baten barruan deskribatzen dira soilik (tituluak, kredituak, datu teknikoak...).

AUDIOVI da bideotekako datu base nagusia, 345.000 erreferentziarekin baino gehiagorekin. Besteak beste, emititutako programazioaren inguruko informazioa eskuratzea, euskarriak lokalizatzea eta ekoizpen berrietarako edota komertzializatzeko irudi zehatzak berreskuratzeke aukera ematen du.

2005etik, erabiltzaileek ondarearen atal bat —eguneroko albiste eta kirol saioak— eskura dezakete, barne sarean (Intranet) txertatutako bilatzaile sinple baten bidez. Bilatzaileak bideoa berezimen baxuan ikusteko aukera ere ematen du.

Hemerotekaren datuak:

Hemerotekak prentsako albisten artxiboa kudeatzen du. Informazio orokorreko egunkari eta aldizkarietatik albisteak hautatu eta gaika eta biografikoki sailkatzen dituzte. 2005ean, prentsako albisten kudeaketarako sistema digital bat ezarri zuten, albisteak atzemateko, katalogatzeko eta kontsultatzeko tresnak dituen. Prentsa albisten funts historikoa 500.000 orrialdek osatzen dute, tiff formatuan. Guztira 650.000 erregistro dira. Erabiltzaileek datu basea kontsultatzen dute korporazioko barne sarean. Thesaurus propio bat erabiltzen da albisteak analizatzeko, eta analisi lana gaztelaniaz egiten da.

Horrez gain, hemerotekak liburutegi zerbitzua ere eskaintzen du, batez ere erreferentziako lanez osatua (hiztegiak, entziklopediak, urtekariak, direktorioak, estatistikak, atlasak...), baita adar guztietako oinarritzko lanez ere, baina batik bat zinemaren eta telebistaren gainekoak, liburu eta CD-ROMetan.

Argazki bildumaren datuak:

*EITB*ko prentsa sailak argazki bilduma bat du, berak kudeatua eta dokumentazio zerbitzutik kanpo. Argazkiak multimedia ediziorako eta prentsa oharretan, erreportajeetan eta abarretan argitaratzeko prest daude. Argazkiak atzeman, zerbitzarietan bildu eta datu base baten bitartez katalogatzen dira, erraz eskuratu ahal izateko. Gutxi gorabehera 5.000 irudi digital daude, eta, horrez gain, ondare bat euskarri tradizioaletan.

Bestalde, dokumentazio zerbitzuak (bideotekak, hain zuzen) telebistako irudien «biblioteka digitala» (*DLS* —*Digital Library System*—) katalogatzen du. Telebista saioetan erabiltzen diren irudi finkoak dira horiek, formatu digitaallean ekoitziak.

Fonotekaren datuak:

Fonotekak txinpartak (edo boladak), programazio kareak, fondo musikalak, sintoniak eta abar osatzeko materiala eskaintzen du. Musika eta soinu artxiboak gutxi gorabehera 2.000 ordu dira urtean; 65.000 abesti. MPG2 formatuan daude, disko gogorrean eta euskarri periferikoetan gordeta. Funts horren harrera korporazioaren barne sarearen bidez egiten da (Intranet), eta datuak kontsultatu, dokumentua entzun edota audio klipak hartu ahal dira. Sailkapena euskaraz eta gaztelaniaz dago.

Etorkizunerako egitasmoak:

Programen artxiboa digitalizatzeko asmoa dute, emisio eta produkzioaren digitalizazio osoaren barruan. Baita artxiboaren integrazioa ere, Bilboko egoitza berrirako aurreikusitako lan prozesu berrietan. Horretaz aparte, disko gogorean fonoteka/diskoteka birtuala osatzen segituko dute.

3.2.3. RTVE

Bideotekaren datuak:

Bideotekako funtsak programek (albistegiak, kulturalak, kirolekoak, dibulgaziokoak) eta batez ere lurraldeko zentroaren albiste eta programetarako egindako jatorrizko grabaketek osatzen dituzte. Dokumentuak zinema (1973tik 1982ra) eta bideo (1982tik aurrera, Betacam analogiko eta digitala) euskarrietan daude. Zinema funtsak 2.400 latak —gutxi gorabehera 720.000 metro grabaketa—, eta bideo funtsak 90, 60 eta 30 minutuko 12.000 zintak baino gehiagok osatzen dute. Dokumentu horien datuek 87.200 erreferentzia osatzen dituzte TVEko datu base zentraletan.

Grabazioek Euskal Autonomia Erkidegoko gaiak jasotzen dituzte, batez ere politika, instituzioak, kirola, ekonomia, lanekoa, gertakariak, kultura eta gizartea. Grabazioak eta horien datuak gaztelaniaz daude.

Beste funts eta zerbitzu batzuk:

Zentroan bertan emititutako albistegi eta saioen jatorrizko gidioak paperean gordetzen dira. Ez dute prozesu dokumentalik izaten, liburukietan koadernatzea eta programaren arabera eta kronologikoki ordenatzea ez bada.

3.3. Agentziak

3.3.1. *Atlas País Vasco*

Bideotekaren datuak:

1993tik gordetzen dira grabazioak, 1.500 zinta DVCPRO eta 300 zinta Betacam formatuetan. Esparru geografikoa Euskal Autonomia Erkidegoa da, eta gizartea, kirola, politika, kultura eta ekonomia lantzen dira. Grabazioak gaztelaniaz daude batez ere. Jatorrizko grabazio eta bideo garrantzitsuak hautatzen dituzte. Horien deskripzioan ez dute erabiltzen lengoia dokumentalik. Dokumentalistek egiten dituzte bilaketak datu basean; kazetariak, ordea, oso gutxitan, beharbada, erreferentzien datu base bat delako. Etxeko informatikariek diseinatu dute sistema.

Prentsa artxiboaren datuak:

Espainiako prentsa eta EAeko gordetzen da.

Fonotekaren datuak:

Fonoteka oso txikia da, eta beste sail batek kudeatzen du. Musikako CDen artxibo bat dute.

3.4. Irratiak

3.4.1. Bizkaia Irratia

Fonotekaren datuak:

Musika eta ahots artxiboek osatzen dituzte funtsak. Musika artxiboek ia 400 ordu osatzen dute, zerbitzarian eta CDetan, eta ahots artxiboek, berriz, 150 ordu. Fonotekako arduradunak katalogatzen eta kudeatzen du musika; egunero ahots artxiboak gordetzea, ordea, kazetarien ardura da. Horretarako, ordenagailuko fitxan adierazten dituzte grabazio bakoitzaren izena, gaia eta eguna.

3.4.2. Eusko Irratia SA

Fonotekaren datuak:

Hiru fonoteka daude igorleen instalazioetan (Miramon —Donostia—, Gasteiz eta Bilbo), gaurkotuak daude, eta asko erabiltzen dira. Fonoteka historiko bat, batez ere *Radio Vitoriaren* ondasunak dituena, Euskal Herriko Unibertsitatearen eskuetan dago gaur egun, Gasteizen. Eta beste fonoteka historiko bat, berriagoa, *Euskadi Irratikoa*, Eresbil Musikaren Euskal Artxiboaren esku utzita dago, Errenterian. Horrez gain, *EITB*ren sarearen barruan fonoteka digitalizatu bat dago; gero eta gehiago erabiltzen da, eta horko 65.000 abesti kazetari eta komunikatzaileen eskuetan jarri dira.

Ahots eta programa artxibo zabala dute, irrati bakoitzak bere zerbitzu propioan. Orain horiek bateratu eta *ETB* eta Interneteko zerbitzuekin partekatu nahi dute. Funtsak honela osatuta daude: 75.000 disko LP eta *single*-ak (*EITBn*, baina baita Euskal Herriko Unibertsitatean eta Erebislen gordailu zaintzan daudenak kontuan harturik), 60.000 CD, 65.000 abesti zerbitzari digitaalengan, 20.000 saio eta soinu dokumentu formatu desberdinetan —kasete, DAT, CD, magneto-optikoa, disko gogorra...—. Gaur egun, CDak eta disko gogorra erabiltzen dituzte batez ere.

Musikan denetarik dago, lurralde, hizkuntza, estilo eta moduei dagokienez. Programa eta ahots dokumentuak Euskal Herriari egiten diote erreferentzia bati bat, eta funtsak euskaraz eta gaztelaniaz daude ia erabat.

Datu baseak Oraclerekin osatu dira, eta zerbitzarian daude, *EITB*ko barneko sarearen bidez kontsulta eta eskura daitezten.

Etorkizunerako egitasmoak:

EITB osorako fonoteka bateratu bakarra izatea, hein handi batean digitalizatua eta soinu dokumentu guztiak etxe barruko sarean jarriak, kazetariak eta komunikatzaileak esku-eskura izan ditzaten. Fonoteka eta diskoteka historikoa ere *EITB* osorako katalogatu, gorde eta zaindu nahi dute. Katalogazio irizpideak bateratu eta, ahal den heinean, digitalizazio prozesu bati ekitea. Fonoteka zerbitzu guztietan ikuspegi multimedia (soinua, irudia, idatzia) lantzeko asmoa dute, erabilgarritasuna areagotzeko.

4. ONDORIOAK

1. Euskal Herriko komunikabideetako dokumentazio zerbitzuak gutxi dira, eta komunikabide handiei dagozkie. Euskal Herrian nagusitasuna duten komunikabideek lurralde historiko batera mugatzen dute euren hedapen eremua, Dokumentazio zerbitzuak komunikabideen egoitza nagusian daude kokatuta, hiriburuetan, eta bereziki Bilbon biltzen dira.

2. Dokumentazio zerbitzuak, askotan, datu baseak osatu zirenean edo informatizazio prozesua hasi zenean sortu ziren; enpresa gazteetan, berriz, komunikabidea sortzearekin batera sortu zen dokumentazio zerbitzua. Mendekotasun hierarkikoa askotarikoa da. Egunkarietako dokumentazio zerbitzuak erredakzioari atxikita daude sarri. Irratikoak, berriz, zuzendariaren menpe daude.

3. Barne zerbitzuak dira; kanpoko erabiltzaileei zerbitzurik eskaintzea zer bait ezohikoa da. Ez dute jasotzen eta ez dute aztertzen modu sistematikoan erabiltzaileen eskaerak (kopurua eta tipologia), *Berría* egunkariak izan ezik.

4. Zerbitzu txikiak dira; batzuk gutxienekoetara ere ez dira iristen, adibidez, pertsona bakarra duten zerbitzuetan. Nabarmentzeko moduko langile kopurua *Diario de Navarra*, *El Diario Vasco* eta *ETBn* bakarrik daukate.

5. Dokumentazio zerbitzuen langileen bi herenak emakumeak dira. Hezkuntza maila altua dute: %77,58 unibertsitarioak dira, eta %74,13 lizentziadunak. Dokumentalista da lan kategoria nagusia (%60,34), gehitzen badiogu artxibozain kategoria, dokumentalista-artxibozain tandemak %62,06 lortzen du. Dokumentalista laguntzailea da ehunekoetan bigarren lan kategoria (%22,41); eta kazetaria hirugarrena (%8,62). Zerbitzu txikia izateak hierarkia gutxi izatea dakar. Aipatzekoa da, halaber, *dokumentalista* izendapen berriagoak gaina hartu diola *artxibozain* izendapen zaharrago eta tradizionalagoari.

6. Komunikabideen ondareak funtsezkoak dira komunikabideen historia aztertzeko, baita komunikazioaren historia lantzeko ere. Baina, ez hori bakarrik, Euskal Herriko gizarte, historia eta kultura ikertzeko eta ulertzeko ere

ezinbestekoak dira. Horregatik, enpresen euren ondasunak izateaz gain, Euskal Herriko ondarearen atal garrantzitsu bat ere badira.

Euskal Herrian ibilbide luzeko hiru egunkari daude gaur egun: *Diario de Navarra*, 1903an sortua; *El Diario Vasco*, 1935ean sortua, eta *El Correo Español/El Pueblo Vasco*, 1938an sortua, *El Correo Español* egunkariak eta *El Pueblo Vasco*-k, (1910ean sortua) bat egin zutenean. *Radio Vitoria* 1934an sortu zen, eta bere funts historikoak Euskal Herriko Unibertsitatearen eskutik utzi ditu, Gasteizen. Aipatzekoak dira, halaber, *RTVE*k dituen ondareak, 1973tik hasita, zein euskarri zinematografikoan dauden. Egunkari, irrati eta telebistako 70eko eta 80ko hamarkadetako funtsak ere historikotzat har ditzakegu.

Komunikabideek informazio kopuru handia hedatzen dute, eta, hala, euren dokumentazio zerbitzuek informazio bolumen izugarria dute. Argazki eta albisteak, baita bideozintak ere (*ETBn*), ehunka mila dituzte, edota milioika (*Diario de Navarra*). Musika eta ahots funtsak, fitxategi digitaletan eta beste-lako euskarrietan, dozenaka mila dira.

7. Egunkarrietan, artxiboaren oinarria argitaratutakoa da, eta dokumentazioaren lanaren ardatza egunerokoa artxibatzea. Zerbitzu gehienetan ez dago kanpoko funtsik.

Horrela adierazten dute euren betebeharra *Deia*, *Diario de Noticias*, *Noticias de Álava*, *El Correo Español-El Pueblo Vasco* eta *El Diario Vasco* egunkarrietan. Oro har, zerbitzarrietan albisteak, argazkiak eta orrialdeak (azken horiek pdf formatuan) gordetzen dira. Argazkiei dagokienez, argitaratu gabeko irudi batzuk ere hautatu eta gorde egiten dira. Egunkariaren zenbakiak koadernatuta eta liburukietan ere gordetzen dira, eta baita epe labur batean paperean pilatuta ere.

Kanpoko prentsa idatziaren funtsak *Diario de Navarra* soilik dute garrantzia. Egunkari horretan beste komunikabideen segimendua egiten dute, eta intereseko albisteak gordetzen dira (paperean 1979tik 1998ra eta euskarri digitalean geroztik). *Vocentok* zinemaren inguruko aldizkariak hustu egiten ditu. Eta, jakina, egunkari eta aldizkarietatik hautatutako materiala da, halaber, *ETB*ren hemerrotekaren ardatza, zeinek 2005etik kudeaketa elektronikoko sistema duen.

Kanpoko datu baseen kontsulta izan daiteke besteen informazioa eta dokumentuak jasotzeko bidea (*Berria*, *Vocento*, *ETB*...), *Plazagunea* edo *Mynews* prentsako datu baseen banatzaileen bidez edota zuzenean ekoizlearekin zerbitzua hitzartuta, *Efe* adibidez.

8. Beste funts eta zerbitzuen artean ohikoena erreferentziako liburutegia da.

ETBn erreferentziako liburutegia dago, baita *Berrian*, *Diario de Noticias*en eta *Vocenton* ere, ohiko lanekin: hiztegiak, entziklopediak, urtekariak, direktoriok, atlasak, estatistikak... liburuetan zein CD-ROM eta DVDetan.

9. Digitalizazioa burutu da prentsan eta irratan, eta prozesua martxan edota hastear dago telebistan.

Euskal Herriko komunikabide aitzindariak 80ko hamarkadaren amaieran hasi ziren erreferentzien datu baseak erabiltzen dokumentuen analisirako. Egunkarietako digitalizazioa 90eko hamarkadaren amaieran eta mende honen hasieran orokortu zen (1999an *Diario de Navarra*, 2004an *Deian*). Gaur egun, prentsan eta irratian produkzioaren eta dokumentazioaren kudeaketa zerbitzarietan egiten da. Telebistan, ordea, digitalizazioa lehenengo pausoak ematen ari da (*ETBn*) edota oraindik ez da hasi (*RTVE* eta *Atlas País Vasco*), nahiz eta enpresa guztiek zinta digitalak aspalditik erabili.

Hala eta guztiz ere, dokumentazio funtsak gutxitan daude zeharo digitalizatuak, komunikabide sortu berrietan izan ezik. Zentro gutxik egin dute atzera begirako digitalizazio osoa, eta gehienetan funts analogikoak eta digitalak, biak dituzte.

10. Anlisi dokumentala gehiago egiten da ikus, entzun eta ikus-entzunezko dokumentuetan, testu dokumentuetan baino.

Berriak IPTC (International Press Telecommunications Council –Subject NewsCodes–) erabiltzen du, euskaratua eta euren beharretara egokitua, kazetaren testuaren eta argazkien analisirako. *ETBko* hemerrotekak prentsako albisteak hautatzen eta analizatzen ditu, horretarako thesaurus propio bat erabiliz.

Deian eta *Noticias Taldean* bilaketak testu librean egiten dira, ez dago bestelako indexaziorik edota sailkapenik. *El Diario Vascon* dokumentuak automatikoki sailkatzen dira. *Vocento Taldean* lengoia librea erabiltzen da (nahiz eta eremu batzuetan hiztegi kontrolatua egon), eta berreskurapenerako hainbat laguntza daude (sinonimoen hiztegia, deribazio erregelak eta *query*-ak, *cluster*-ak...).

Noticias Taldeko egunkarietan argazkiak analizatzeko hiztegi kontrolatu bat erabiltzen dute. *RTVE*n eta *ETBn* dokumentalistek materiala ikusi, analizatu, deskribatu eta indexatu egiten dute; horretarako lengoia dokumental garatuena erabiliz, thesaurusak hain zuzen. *Eusko Irratian* funtsak sailkatzen dira. Eta *Bizkaia Irratian* girozte musikalean aditua den kazetari batek funts musikalak katalogatzen ditu; ahots mozketak ordea, kazetariak.

11. Informatizaziorako erabilitako programak komertzialak edota enpresan bertan garatutakoak dira.

Erabiltzen diren programa komertzial ohikoenak hauek dira: *Arcano (Deia)*, *Mediagrid (Noticias Taldeko* egunkarietan), *Phrasea (Gara)* eta *Airs (ETB)*. Beste aukera bat enpresak berak garatutako aplikazioak dira, horrela egin dute *El Diario Vasco*, *El Correo*, *Vocento*, *Berria (MySQL)*, *Diario de Navarra (Oracle Intermedia* eta *SQL)* eta *Eusko Irratia (Oracle)* komunikabideetan.

12. Erabiltzaileek barruko sarearen bitartez (Intranet) kontsultatzen dituzte zuzenean datu baseak eta berreskuratzen dituzte dokumentuak. Horrela da jada egunkarietan, eta horretara bideratzen ari dira irradi eta telebistetako zerbitzuak.

Egunkari guztietan erabiltzaileek eurek kontsultatzen eta berreskuratzen dituzte zuzenean testuak eta irudiak. *ETBko* hemerrotekan ere horrela gertatzen da prentsako funtsekin. Gainera, *EITBn* fonotekako hainbat funts zerbitzari batean digitalizaturik eta barruko sarearen bitartez eskura daude irradi eta telebistetako

langileentzat. Zehazki, 65.000 abesti baino gehiago kontsultatu, entzun edota har daitezke. *Bizkaia Irratian* ere gero eta fonotekaren atal handiagoa sarean dago.

Ikus-entzunezko funtsei dagokienez, *ETB*ko erabiltzaileek zuzenean kontsultatu eta eskuratu ahal dituzte albiste eta kirol saioak 2005etik aurrera. Barne sarean txertatutako bilatzaile simple bati esker egiten dira kontsultak, eta bereizmen baxuko bideoa ikus daiteke. *RTVE* eta *Atlas País Vasco* enpresetan, ordea, datu baseek erreferentziak jasotzen dituzte soilik eta, segur aski horregatik, batik bat dokumentalistek kontsultatzen dituzte.

13. Komunikabideen dokumentazio zerbitzuak izatetik korporazioen dokumentazio zerbitzuak izatera igarotzen ari dira.

Gaur egungo digitalizazioak, komunikazioak eta sarean dauden zerbitzari handiek komunikabideen funtsak partekatzea errazten dute. Eta komunikabideen dokumentazio zerbitzuak izatetik komunikazio taldeen zerbitzuak izatera igarotzen ari direla atzematen da hainbat enpresatan. Zerbitzuak partekatzeko zenbait modu daude. Izan daiteke eredu deszentralizatu bat eta dokumentuen sarbide erkidea; *Vocento* eta *Noticias* taldeen kasuan, adibidez. Edota zerbitzu baten garapen eta mantentze komuna, *EITB Taldeko* irratiaren eta telebistaren musika funtsekin aurreikusi duten sistema.

14. Dokumentazio zerbitzu multimediarako joera ikusten da, hainbat faktorek eraginda: komunikabide taldeen zerbitzura izateak, digitalizazioak eta sareek dokumentu desberdinak kudeatzeko ematen duten erraztasunak eta, azkenean, komunikabideak Interneten egoteak.

Aztertu ditugun dokumentazio zerbitzuen artean, *ETB*koak bakarrik du multimediararen izaera egituran txertatua, eta arlo tradizional hauek dauzka barneratuta: bideoteka, fonoteka eta dokumentazio idatzia. Baina beste hainbat enpresatan ere sumatzen da zerbitzu multimedia bilakatzeko joera. Digitalizazioak eta sareek bultzatzen dute multimediarako joera, dokumentuak partekatzeko eta berrerabiltzeko aukeraz baliatuta. Hala, *EITB* fonoteka zerbitzu guztietan «ikuspegi multimedia» (soinua, irudia eta idatzia) landu nahi duela adierazten du, erabilera askotarikoa bultzatzeko.

Talde mediatikoen barruan kokatzeak ere bultzatzen du multimedia. Adibidez, *El Correo* edota *El Diario Vasco* egunkarietako dokumentazio zerbitzuetan taldeko telebisten funtsak analizatzen eta kudeatzen ari dira.

Internetek ere bide horretara daramatza komunikabideak, eta horiekin batera euren dokumentazio zerbitzuak. Ikerketek adierazten dutenez, egunkariaren webguneetan azken joera multimedia eta elkarreragina bultzatzea da. *Berrian*, adibidez soinu artxiiboak (elkarrizketak) analizatzen eta kudeatzen ari dira.

15. Euskarazko komunikabideetan, hau da, *Berrian*, *Euskadi Irratian* eta *Bizkaia Irratian*, ondareak euskaraz daude, eta dokumentazio lana ere euskaraz egiten dute.

*ETB*n euskarazko funtsak handiak eta garrantzitsuak dira, datu baseak eta dokumentazio lana, ordea, gaztelaniaz daude ia erabat. Gainontzeko dokumentazio zerbitzuetan, edo ez dago euskarazko funtsik edo oso txikiak dira, eta dokumentazio lana gaztelaniaz egiten da.